

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Behin betiko onestea Kalez kaleko salmenta arautzen duen Ordenantza**

2022ko maiatzaren 27ko Osoko Bilkurak «Kalez kaleko salmenta arautzen duen ordenantza» behin betiko onartzen du; Hori horrela, bere testu osoa argitaratzen da, denek horren berri izan dezaten eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Bermeon, 2022ko uztailaren 12an. — Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense

**KALEZ KALEKO SALMENTA BERMEON ARAUTZEN DAUAN ORDENANTZA**
ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen helburua, Bermeoko udalerrian garatu daitekeen kalez kaleko salmenta arautzea da, indarrean dagoen legediak ezartzen dituen mugen eta garapen ahalmenekin bat.

Kalez kaleko salmentaren jarduera orokorraren barruan, alde batetik, astean behin egiten den kalez kaleko salmenta (azokatxo) eta bestelako azoka berezietako kalez kaleko salmentaren erregulazioa bereizi nahi dira, euren arteko ezberdintasunak kontutan edukita, kasu bakoitzarentzat egokienak diren arauak zehazteko.

Bestalde, udalak antolatu eta, helburu nagusi legez, kalez kaleko salmenta daukaten jarduerak, hirugarrenek antolatzen dituzten edota helburu nagusizat kalez kaleko salmenta ez duten jarduerak bereizi nahi dira, araudia beharrian, efikazia, proportzionaltasun eta efizientzia printzipioak errespetatu daitezkeen; eta kontutan edukita kalez kaleko salmenta batzuk, bestelako ekimen edo jardueren barnean egiten direla, salmenta soila baino harago doazen helburuek lortzeko, eta helburu horien laguntzaile edo osagarri moduan.

Ordenantza honen bidez arautzen den kalez kaleko salmenta jabari publikoan egiten dena izanda, merkataritza jarduerak garatzeko eskubidea, jabari publikoa libreki erabiltzeko eskubidearekin uztartzen den heinean, eskubide horien gozamen orekatu eta baketsua bermatu nahi dira.

L. KAPITULUA

1. artikulua. — Xedea

Bermeoko udalerrian garatu daitekeen kalez kaleko salmenta arautzea da Ordenantza honen helburua.

Ordenantza hau Merkataritza jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 legea eta Kale salmenta arautzen duen 7/1996 legea aldatzen duen matxoaren 1eko 1/2010 legean oinarrituta dago.

2. artikulua. — Kalez kaleko salmenta. Kontzeptua

Kaleko salmenta da merkataritza-establezimenduetatik kanpo, postu edo instalazio desmuntagarrietan zein ibilgailuetan, egindakoa.

Gune publikoetan eginez gero, Udalaren baimena beharko da kalez kaleko salmentan aritzeko. Baimena transmitigarria da, beti ere, ahalmen dagoen udal organoari aldez aurretik jakinarazten bazaio.

3. artikulua. — Kalez kaleko salmenta motak

Ordenantza honen aplikazio eremu barruan sartzen dira ondorengo kalez kaleko salmenta motak:

- a) Udalak sustatuta, aldizka egiten diren merkatuak, bai antzinatek egiten direnak edota berriak, leku edo toki zehatzetan kokatuak. Astean egun baten bakarrik egingo da gehienez. Hemendik aurrera Azokatxo legez identifikatuko da.
- b) Herriko jaietan edo data berezietan, udalak sustatutako azokak.
- c) Partikularren inizatibaz sustatutako noizean behineko azokak.
- d) Partikularren inizatibaz sustatutako kalez kaleko salmenta puntualak.
- e) Udalak sustatutako ekimen orokor baten barruan egon daitezkeen kalez kaleko salmenta puntualak.
- f) Partikularren inizatibaz sustatutako ekimen orokor baten barruan egon daitezkeen kalez kaleko salmenta puntualak.
- g) Aurreko ataletan aurreikusita ez dauden egoera eta baldintza berezietan, bidean jarritako kamioi-denda eta saltokietan egindako salmentak.

**4. artikulua. — Leku zehatzetan kokatutako aldizkako azokak — azokatxoak —**

1. 3.a) atalean aipatutako kalez kaleko salmentak dira eta Udalak horretarako ezarritako lekuan, aldikotasun finkoaz -antzinatik edo orain dela gutxitik- batzen diren kalez kaleko saltokiek osotzen dute azoka mota hau.

2. Bermeoko udalerrian, ezaugarri hauetako saltokitizat hurrengoa hartzen da:

— Izena: «Azokatxo».

— Aldikotasuna: Asterokoa martitzenetan, egun hori jaia ez bada. Martitzena jaia izan ezkerro, ez litzateke azokatxorik egongo. Hori dela eta, urtero, Alkatetzak edo eskuordetutako organoak egutegia onartuko du.

— Ordutegia: 9etatik 14etara.

3. Azoka berriak astean behin baino ezin izango dira egin, Bermeoko Udaleko Alkatetzak edo eskuordetutako organoak onartutako egun eta ordutegiarekin.

5. artikulua. — Noizean behineko azokak

3.b) atalean aipatutako kalez kaleko salmentak dira, hau da, aldizka barik, ospakizun zehatzetan egiten direnak ditugu: ospakizun herrikoietan, herriko jaietan, estatu edo autonomiaren jai edo ospakizunetan, udaldian jartzen direnak, kirol, kultur edo jai ospakizunetan. Janari edo edari salmenta ere onartzen da, ospakizunak dirauen bitartean.

Mota honen barruan sartzen dira udalak sustatutako eskulangintza, nekazaritza, epokako edo antzeko azokak.

Saltzaileak berak edo beste batek eskuz egindako produktuen salmenta onartuko da saltoki hauetan. Adibidez: larruzko gaiak, zeramika, pintura, eskultura, apaingarriak, itsaso edo arrantza produkzioa, etab.

Azoka bereziak edo kultur ekintzetan egiten direnak ere mota honetan sartuko dira, beti ere udalak sustatzen baditu.

Noizbehinkako azokek aparteko izaera izango dute eta euren egoera, aldikotasuna, saltoki kopurua eta baimenen esleipena egiteko prozedura, kasuan-kasuan, Alkatetzaren erabaki bidez onartuko dira.

6. artikulua. — Partikularren inizatibaz sustatutako kalez kaleko salmentak

1. 3.c) eta d) atalean aipatutako kalez kaleko salmentak dira hauek eta, Alkatetzak, egokitasuna aztertu ondoren, baimendu edo ukatu ahal izango ditu, hautabide osoz.

2. Baimendu ezkerro, udal baimenean adierazten den lekuan edo lekuetan garatuko da.

3. Baimen hauek emateko ekimenaren eta eskatzailearen ezaugarriak hartuko direnez kontutan, ezingo dira eskualdatu edo laga eta, salmenta, baimendutakoak baino ezingo du garatu.

4. Baimena emateko, Bermeoko udalerriko jabari publikoa okupatzeari buruzko Ordenantza araututako baldintzak eta prozedura bete beharko dira.

7. artikulua. — Udalak sustatutako ekimen orokor baten barruan egon daitezkeen kalez kaleko salmenta puntualak

3.e) atalean aipatutakoak dira eta, hauen kudeaketa, 5. artikuluan aitatutako moduan egingo da.

8. artikulua. — Partikularren inizatibaz sustatutako ekimen orokor baten barruan egon daitezkeen kalez kaleko salmenta puntualak

1. 3.f) atalean aipatutakoak dira eta ekimen orokorra antolatzeke baimen bereziaren barruan onartutzat emango dira.

Hori horrela, kalez kaleko salmenta hauei, Ordenantza honen 13. eta 29. atalak baino ez zaizkie aplikatuko eta, baimena emateko, Bermeoko udalerriko jabari publikoa okupatzeari buruzko Ordenantza araututako baldintzak eta prozedura bete beharko dira.

**9. artikulua.—Bestelako salmentak**

1. 3.g) atalean esaten den moduan, aurreko ataletan aurreikusita ez dauden egoera eta baldintza berezietan, bidean jarritako kamioi-denda eta saltokietan egindako salmentak izango dira hauek eta, 6. artikuluan xedatutako moduan baimendu edo ezeztatuko dira.

2. Mota honetan sartuko dira, besteak beste, Donibane egunean, ekainaren 24ean, tradizioz Gaztelugatxeko Donieneren eremu inguruan egin ohi den erroskila salmenta eta Domu Santuetan, Mendiluz hilerriaren sarreraren ondoan eta Udal Azokaren kanpoaldean egin ohi den loreen salmenta. Kasu hauetan, jasotako eskari guztiak onartu edo ezeztatu beharko dira, ezelako diskriminaziorik egin barik. Kopurua mugatu gura izan ezker, baimenak jasotako eskari guztien artean zozketatu beharko dira, berdintasun eta gardentasun printzipioak betetzen dituen zozketa publiko bidez.

3. Salmenta furgoneta edo kamioi ibilgailuetan egingo bada, garraioari eta onartutako produktuen salmentari aplikatzen zaion araudiak ezarritakoari egokituta egongo da eta, janari salmentaren kasuan, eskaria egiterakoan derrigorrez agertarazi beharko da, aplikagarriak diren Osasun eta Tekniko Arauei buruz ibilgailuak dauzkan dotazioak eta zelan dagoen egokituta.

Baimena emateko 14. artikuluan agertzen diren baldintzak betetzeaz gain, ibilgailuaren zirkulazio baimena, erabiliko duenaren gidari txartela eta dagokion «ITV»a gaindituta daukanaren frogagiria aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek.

4. Salmenta hauek baimendu ezker, udal baimenean adierazten den lekuan edo lekuetan garatuko dira.

10. artikulua.—Leku finkoa eta izaera desmuntakorra duten saltokietan egindako salmenta

1. Ondorengo kalez kaleko salmentak sartzen dira mota honetan:

- Gozoki eta fruitu lehorren saltokiak.
- Bitxi eta eskulanen saltokiak.
- Ekonomia edo gizarte izaerako gai eta argitalpenentzako saltokiak.
- Zirku, antzerki eta beste honelako ikuskizunetan jarritakoak.
- Lore eta landareen izaera honetako saltokiak.

2. Produktu hauek saltzeko desmuntagarriak ez diren saltokiak ez dira sartuko atal honetan:

- Txurro eta frijituen saltokiak.
- Izozki eta freskagarrien saltokiak.
- Meloi eta angurrien saltokiak.
- Gaztaina erreen saltokiak.
- Izaera hau duten lore eta landareen saltokiak.
- Egunkari, aldizkari eta argitalpenen saltokiak.

3. Zehazki kanporatuta agertzen ez diren saltoki guztiak kalez kaleko salmentatzat hartuko dira.

4. Egunkari, aldizkari, ONCE eta argitalpenen saltokiak, Bermeoko udalerriko jabari publikoa okupatzeari buruzko Ordenantzaren bidez arautuko dira.

5. Kalez kaleko salmenta izaerarik ez dute izango inola ere:

- Etxez etxeko salmentak.
- Urrutiko salmentak.
- Aukerako salmentak.
- Horretarako prestatutako makinez egindako salmenta automatikoak.

**11. artikulua. — *Debekatutako salmentak***

Ordenantza honetan aurreikusitako kasuez kanpoko kalez kaleko salmenta guztia debekatuta geratuko da udalerrri osoan.

12. artikulua. — *Salgalak*

18. artikuluan zerrendatutako edozein produktu eta elikagai saltzea baimendu daiteke kalez kaleko salmentan, beti ere indarrean dagoen araudiak ez badu debekatzen edo mugatzen saltzea, eta zorrotz betetzen bada elikagaien osasun araudi teknikoa eta aplikagarria den gainerako legeria.

13. artikulua. — *Azokatxoko saltokiak*

1. 3.a) artikuluko kalez kaleko salmentarako saltokien neurri handiagoak edo txikiagoak eta beste berezitasunak baimen bakoitzean ezarriko ditu dagokion organoak, interesatuek edo euren ordezkariak entzun daitezkeelarik. Hala ere, bere kopurua beti izango da herrian dauden dendak baino heren bat txikiagoa.

2. Ezarritako baldintzei lotuta egongo dira baimendun titularren instalakuntzak, kontuan izanda beti, erraz garraiatu beharreko instalakuntza desmuntagarriak izango direla. Segurtasun, osasun eta apaindura baldintzak beteko dira.

3. Udalak, funtzionamendu onerako eta azokatxoaren kontrola eramateko, plano bat izango du eskalan. Saltoki guztiak zenbakia jarriko bananduta islatuko dira plano horretan. Zenbaki horiek bat etorriko dira emandako baimen eta txarteletan.

Saltokiak linealak izango dira salmentarako produktuen erakusketan, eta neurri bazuak izango dituzte, hegalak barne, dagokion esleipen-prozesuan ezarritakoetara egokituak, edo, hala badagokio, Udalak onartutakoetara egokituak.

14. artikulua. — *Kalez kaleko janari saltokien baldintzak*

Elikagaien eta belar-dietetiken kalez kaleko salmentaren izaera berezia kontuan izanda, Ordenantza honetan agertzen diren baldintza orokorrez gain, honelako produktuak saltzen duten saltoki guztiek indarrean dagoen osasun legeriak zehazten dituen osasun-higiene baldintzak eta Araudi honetako 3. eranskinean agertzen diren instalazio eta merkatal produktu espezifikokoetako araudiek jarritakoak bete beharko dituzte.

15. artikulua. — *Kalez kaleko salmenta garatzeko baldintza*

3. artikuluko a), b) eta c) ataletako kalez kaleko salmenta garatu ahal izateko, baimendunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Jarduera Ekonomikoei buruzko zergari dagokien epigrafeetan alta emanda egotea eta guztia ordainduta edukitzea.
2. Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea eta kuota ordainduta izatea. Pertsona juridikoen kasuan, enpresa legez Gizarte Segurantzaren inskribatuta egotea, bere langileak afiliatuta egotea eta ordainketa guztiak ordainduta edukitzea.
3. Saltzen diren produktuei edo instalakuntzei buruz araudi espezifikoek ezarritako osasun eta higiene baldintzak betetzea.
4. Udal baimena izatea.
5. Dagozkien tasak ordaintzea.
6. Atzerritarren kasuan, Egoitza eta Lan baimen egokiak lortu izanaren dokumentazio egiaztagarria edota egoteko eta lan egiteko gai egiten dituzten beste edozein agiri.
7. Bermeoko Udalarekin, legezko errekursoaren zain ez dagoen ezertariko zorrik ez edukitzea.
8. Salmenta jardueran aritzen diren bitartean aurkezten diren erreklamazioak jaso ahal izateko, ohiko helbidea eduki.
9. Kale salmentarako baimena duen orok jarduera ekonomikoaren arriskuak barne hartuko dituen erantzukizun zibileko asegurua izan beharko du.



II. KAPITULUA

UDALAK SUSTATUTAKO MERKATU ETA AZOKETARAKO UDAL BAIMENAK

16. artikulua.—Azokatxorako eta noizean behineko azoketarako baimenak eskuratzea

Udalak sustatuta, aldizka egiten diren merkatuetan –azokatxoa- edota herriko jaietan eta data berezietan, udalak sustatutako azoketan saltzeko baimenak Administrazio Publikoaren Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 86. eta hurrengo artikuluetan eta Zerbitzuetako jardueretara libreki sartzeari eta horietan aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen II. kapituluan ezarritakoaren arabera emango dira eta, beti ere, lehia-prozesuaren baldintzei jarraituz.

Baimena eskuratzeko interesatuek aurkeztu beharreko eskarian agertuko da:

- a) Eskatzailearen izen-abizenak eta egoitza soziala, bere kasuan.
- b) Pertsona juridikoen kasuan, NAN, EIZ eta IFKren zenbakiak.
- c) Ohiko helbidea.
- d) Instalakuntza eta salgaien deskripzioa.
- e) Pertsona juridikoen kasuan, honen kontura baimena erabiliko den langilea edo bazkidearen izena, helbidea eta NANA ere jarri beharko da agerian.
- f) Baimena eskatzen den azokaren identifikazioa.
- g) Okupatu nahi den metro kopurua.

17. artikulua.—Azokatxorako eta noizean behineko azoketarako baimenak eskuratzeko agiriak aurkeztea

1. Eskaria aurkezterakoan interesatuek erantzukizunaren aitorten bat baino ez dute sinatu beharko, eta bertan, gutxienez, honakoak adieraziko dituzte:

- a) Ezarritako baldintzak betetzen dituztela.
- b) Jardueraren hasieratik bertatik hori egiaztatzen duen agiriak dituztela.
- c) Baimena indarrean dagoen bitartean beteko dituztela.

2. Erantzukizunaren aitortenaren edukiak, horrez gain, beste hauek ere jasoko ditu:

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafean alta emanda dagoela eta tarifaren ordainketan egunean dagoela edo, salbuetsita egonez gero, zergapekoen erroldan izena emanda daukala.
- b) Indarrean dauden xedapenek ezarritako Zerga betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzako kotizazioak ordainduta dituela.
- c) Hirugarren herrialdeetatik datozenek, egoitza-baimenari eta lanerako baimenari dagokienez, indarrean dagoen legedian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.
- d) Kanean saltzen den edo saltoki finkoetan saltzen ez den produktuaren edo produktuen araudiak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen dituela.
- e) Jarduera ekonomikoaren arriskuak barne hartuko dituen erantzukizun zibileko aseguruia daukala.

3. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan altan emanda egotea eta ordainketak egunean izatea edo, hala badagokio, zergapekoen erroldan egotea egiaztatzeko bi bide izango ditu aukeran interesatuak: berak egiaztatuta edo, bestela, Administrazioari egiaztatu behar hori egiteko baimena emanda.

4. Aurreko atala gorabehera, erantzukizunaren aitorpenean zehaztutako beste betebeharrak ez dira dokumentu bidez egiaztatu beharko, administrazio publikoek egiaztapenerako dituzten ahalmenen kalterik gabe.

Administrazio publikoek egiaztapenerako daukan ahalmena, edozein momentuan, baimena indarrean dagoen bitartean, gauza dezakete, eta interesdunak ezarritako bal-



dintza guztiak betetzen ez dituela egiaztatuko balu, 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, baimena iraungi egin dezake, beti ere, interesdunak aurretiaz entzun ondoren.

III. KAPITULUA

UDALAK SUSTATUTAKO MERKATU ETA AZOKETARAKO BAIMENAK ESKURATZEKO PROZEDURA

18. artikulua.—Azokatxorako eta noizean behineko azoketarako baimenak eskuratzeko prozedura

Dagokion udal organoak, eskaria eta agiri egokiak direla eta ordenantzan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, zuzenean emango die saltokiaren baimena eskatzaileei.

Eman daitezkeen salmentarako baimenak aurkeztutako eskariak baino gutxiago izango balira, baimenak zozketa prozesuaren bidez emango lirartekeen. Horretako, baimenak saltokietan saltzen diren produktuen arabera (esate baterako, gozoki, lore, bitxi eta eskulanean saltokiak, etab.) talde ezberdinetan sailkatuta egongo dira, eta zozketa bakarrik egingo da baimen baino salmentarako eskari gehiago egongo lirartekeen taldeetan, aldiz, talde bateko salmentarako baimenen kopurua nahikoa izango balitz aurkeztutako eskabide guztientzat, aurreko lerro-aldiaren prozesua jarraituko da.

Salmentarako baimenen taldeak honako hauek izango dira:

- Ehungintza / apaingarriak.
- Oinetakoak.
- Elikagaiak.
- Bestelakoak.

Dena dela, elikagaien eta belar eta dietetikaren produktuen kalez kaleko salmenta baimentzeko beharrezkoa izango da dagokion osasun eskumena duen organoaren baieztokoa txostena.

19. artikulua.—Azokatxorako eta noizean behineko azoketarako baimenaren ezauzgarriak

1. Ondorengoa edukiko du espresuki Azokatxoan saltzeko udal baimenak:
 - Lizenziaren titularraren eta bere izenean aritzeko baimena duen edo duten pertsona edo pertsonen identifikazioa.
 - Kokagune eta aldizkotasun finkoa duen azokaren saltokiaren zenbakia, edota jarduera hori zein edo zeintzuk lekutan garatu daitezkeen.
 - Baimendutako produktuak.
 - Jarduera garatzeko eguna eta ordutegia.
 - Okupatzeko den azalera.
 - Instalakuntzaren berezitasunak.
2. Baimendutako saltzaile guztiei nortasun txartel bat emango zaie, ondorengoa jarrita:
 - Titularra eta baimendutako pertsonen -baleude- identifikazioa.
 - Saltzeko baimenaren balio epealdia.
 - Baimendutako produktuak.
 - Kontsumitzaileen erreklamazioei erantzuna emango zaien lekuko helbidea
 - Aldizkotasun eta kokagune finkodun azokaren kasuan, saltoki zenbakia eta jarduera garatzeko egunak, ordutegiak eta baimendutako lekuak.
3. Identifikazio hau beti izango du erakusgai, udal aginteak eskatuz gero.
4. Baimen hauen izaera dela eta, iraungi egin daitezke baldintzatzen dituzten kondizioak ez betetzeagatik eta errebokatu egin daitezke ematea oinarritzen zituzten zirkunstantziak desagertzen direlako edo ez ematea justifikatuko zituzten zirkunstantziak



agertzen direlako. Kasu hauetan, indemnizazio edo ordainsaririk hartzeko eskubiderik ez du izango baimenaren titularrak.

5. Epealdi baten barruan ezin izango zaio titular berari kalez kaleko salmentan aritzeko baimen bat baino gehiago eman. Lizentzia bakarrak ere ez du balioko saltoki bat baino gehiago jartzeko.

6. Saltokien eta okupazio kopurua mugatu daiteke Bermeoko Udalak, 13.1. artikulua ezarritako mugekin. Hori dela eta, ezeztatu egin daitezke ezarritako mugak gainditzen dituzten eskariak.

IV. KAPITULUA

UDALAK SUSTATUTAKO ALDIZKAKO ETA NOIZEAN BEHINEKO AZOKETAN SALTZEKO BAIMENEN BEREZITASUNAK

20. artikulua.— *Baimenen eskualdaketa*

Udal baimena jabez alda daiteke, beti ere, alde aurretik eskumena duen udal organoari jakinaraziz. Dena den, titularra beti egon beharko da saltokian, behar den moduan arazoitutako egoerak salbu.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren eraginetarako, pertsona fisikoak direnean, titularraren lehen graduko senideak eta Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden honen langileak baimendu daitezke.

21. artikulua.— *Baimenen iraupena*

Baimenaren iraupena egun bat eta 10 urte bitartekoa izango da eta salmentarako baimenen esleipenerako prozeduran zehaztuko da.

Azokatxoaren kasuan baimenaren iraupena 10 urtekoa izango da.

Ematen diren salmentarako baimenak ezin izango dira, inolako kasuetan, automatikoki berriztatu.

V. KAPITULUA

BAIMENEN IRAUNGITZEA ETA BAIMENDUNEN ESKUBIDEAK

22. artikulua.— *Baimenen iraugitzea*

Saltzeko baimenak iraugituko dira:

- a) Epealdia amaituz gero.
- b) Titularrak utzi egin duelako.
- c) Titularra hil edo enpresa desegin egin delako.
- d) Baimena galtzea eragin duen zigorra eman delako.
- e) Udalari jarritako legezko errekurso barruan ez dagoen prezio publikorik ordaindu ez duelako.
- f) Baimena lortzeko eskatu diren baldintza guztiak edo bataren bat galdu duelako.
- g) Udalak ezagutu barik eta justifikatu barik, lau aste jarraian edota tartekako sei astetan azokara joan ez delako. (urtean, ez baimenaren epean)
- h) Interesatuak aurretiaz entzun ondoren, 21. artikuluan ezarritako iraugipenagatik.
- i) Bermeoko udalerrian, orokorrean, kalez kaleko salmentaren kokapena edo aldizkotasun finkoa kendu egin delako.

d), e), f), g), h) eta i) zioengatik iraugitzea, eskudun udal organoak hartutako erabaki bidez egingo da, interesdunari aurretiaz 15 eguneko epearen barruan aurretiazko audientzia emanez.

**23. artikulua.— Baimendunen eskubideak**

1. Udal baimendun titularrek eskubide hauek izango dituzte Bermeoko udalerriko kalez kaleko salmentan:

- a) Baimenduta dituzten saltokiak okupatzekoa.
- b) Udalak baimendutako salmenta jarduera, baimenean ezarritako ordutegian eta baldintzetan publikoki eta bakean garatzekoa.
- c) Herriko agintearen eta Udaltzaingoaren babespena eskatzekoa, baimendutako jarduera aurrera eroan ahal izateko.
- d) Jardueraren garapena baimenduta daukan azokaren funtzionamendua hobetzeko erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztekoa.
- e) Udalak txartel identifikatzailea ematea, 19. artikuluan ezarri den edukiarekin, 3 artikulua a) eta b) ataletako salmenten kasuan.
- f) Salmenta jarduera saltokian garatzekoa berak eta baimendutako pertsonak.
- g) Bere saltokia non kokatuko den jakitekoa, beti ere, zoru asfaltatua, zementatua edo zorua jarritakoa izango da.

2. Aldizkako azoketan salmentaren garapenerako udal baimena duten titularrek, azoka horretan, salmentak eragindako hondakinak biltzeko kontenedore edo leku bereziak edukitzeko eskubidea dute. Azokak, ahal izan da, ondorengoa eduki beharko du:

- a) Iturri publikoa edo ur hornidura zerbitzua.
- b) Erosleek erositakoa egiaztatu ahal izateko, berriro pisatzeko baskula bat. Baskula hori Udal Azokan kokatuko da.

24. artikulua.— Baimendunen betebeharrak

1. Kalez kaleko salmenta garatzeko udal baimendun titularrek, ondorengoa bete beharko dute:

- a) Saltoki edo instalazio desmuntagarrietan egin beharko da salmenta edo 13 eta 14. artikuluetan jarritako baldintzadun kamioi-dendetan. Erraz garraiatzekoa eta jarduera mota honentzako egokia izango da.
- b) Leku ikusgarrian jarriko dute udal baimena saltokietako titularrek.
- c) Merkatal jardueraren garapenean, merkataritza, azokaren diziplina eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideei buruz indarrean dauden araudiek ezarritakoa bete beharko dute beti saltzaileek.
- d) Eskainitako produktuen salmentarako prezioak era ikusgarrian erakutsiko dira txartel eta etiketetan. Zehazki eta errakuntza barik erakutsiko dira salgaien prezioak, beti ere, arlo honetan indarrean dagoen legedia gorderik.
- e) Azokatxoko baimenen kasuan, azoka funtzionamenduan dagoen orduetan titularra saltokian egongo da. Behar den moduan baimendutako laguntza jaso daiteke, ordenantza honetako 24. artikulua g) atalak ezarritakoaren arabera.
- f) Behar den moduan egiaztatutako udal langile edo aginteak eskatuz gero, eskatzen jaken dokumentazioa ematera behartuta egongo dira saltzaileek.
- g) Aldizka egiten den Bermeoko ohiko azokak goizeko 9etatik eguerdiko ordu bietara bitartean iraungo du. Zamaian ordutegi hori baino ordu bat lehenago eta beranduago egingo dira. Salmentarako ordutegiaren barruan, ezin izango da zirkulatu azoka barruan.

Ezarrita dagoen leku zehatzean jarri beharko du saltokia adjudikatariak. Azokatxo eta udalak sustatutako noizean behineko azoken kasuan, ezin izango du hartu beste saltoki bat, hango titularra ez balego ere.

Azokatxoa ez den bestelako kalez kaleko salmenta ordutegia, emandako baimenean zehaztutakoa izango da.



- h) Saltzaileen ibilgailuak ez dira egongo azoka edo salmenta eremuaren barruan ez eta saltoki ondoan, honen inguruan eta horretarako jarri diren lekuetan aparkatuko dira. Kamioi-dendak salbuetsita dagoz debeku honetatik.
Horretarako jarritako azoka edo salmenta eremuaren gunean aparkatuko dira ibilgailuak zama lanak burutzeko eta egin ahal izateko ezinbestekoa den denboran, beti ere, g) puntuan ezarritako ordutegiaren muga barruan.
- i) Salmenta garatzeko perimetroak eta lekuak gordeko dituzte baimendun titularrak. Inola ere ezin izango dute toki publiko, pribatu edota merkatal edo industria establezimenduetarako sarbideekin bat etorri. Ezin izango dute, ez eta, euretako erakustoki edo eskaparateen, ez trafikoen seinaleen edota beste erakusleen ikusgarritasunik galarazi. Kale, oinezkoen igarobide edo etxebizitza, denda edo ibilgailuetarako sarbideen gurutzaguneetan ere ezin izango dira kokatu.
- j) Kontsumitzaileek erreklamaziorik eginez gero, leku ikusgarrian edukiko dute jarrita saltzaileek zein helbidetan hartuko dituzten kexak. Salmentaren errezibo edo egiaztagirian ere agertu beharko da helbide hori.
- k) Pisatu edo neurtu beharreko salgaiak saltzen dituzten saltokiek baskula edo neurtzeko metroa eduki beharko dute.
- l) Behar den moduan babestuta erakutsi beharko dira salgai guztiak. Lurzorutik 60 metrotara gutxienez, euren pisua edo bolumena kontuan izanda arazoren bat eragiten dutenek izan ezik.
- m) Produktu bakoitzaren berezitasunentzat egokiak diren ontzi edo kontenedore homologatuetan erakutsiko dira beti janariak.
- n) Interesdunak eskatuz gero, salerosketaren erreziboa edo frogagiria ematera behartuta dago saltzailea. Errezibo horretan ondorengo agertu beharko da gutxienez:
- Nortasun datuak edota enpresaren izena eta egoitza.
 - NANA, EIZa edo IFKa.
 - Kontsumitzaileen erreklamazioak zein helbidetan hartuko diren.
 - Produktuak.
 - Prezioa eta eguna.
 - Zenbatekoa.
 - Sinadura.
- ñ) Emandako saltokitik kanpora ez dute salgaiak salduko, ez zirkulazio librerik oztopatuko ere saltokien arteko pasabideetan.
- o) Sastarrak, ontziak, paperak eta merkatal jarduera honen ondorioz sortutako hondakin guztiak, Udalak horretarako jarritako lekuetan batuko dira. Ezin izango da aldatu kontenedore hauen kokagunea kalez kaleko salmenta jardueraren ondorioz. Dena dela, sastar, ontzi, eta beste hondakin guztiak plastikozko poltsa sendoetan sartu behar dira, hondakin organikoak izan ezik, zeinak dagozkion edukiontzietan batuko diren udalak finkatutako irizpideak jarraituz.
- p) Saltokiaren instalakuntza kontserbazio egoera onean mantendu beharko da.
- q) Zoruan, zuhaitzietan, argiterian, hiri-altzarrietan eta abarreatan eragindako hausketak konpondu beharko dituzte saltokietako titularrek.
- r) Jarduera garatzen den instalakuntzek inori eragindako kalteen erantzuna izango dute, erantzukizun zibilaren poliza bidez.
- s) Salgaien eskaintzak ahoskatzeko aparatu akustikoak erabiltzea debekatuta geratuko da.
- t) Ordenantza honek eta arlo honetako lege aplikagarriek emandako aginduak betetzera behartuta dagoz udal baimendun titularrak. Kalez kaleko salmenta baimentzen den azoka zuzenki funtzionatzeko udal funtzionario edo aginteak agindutakoa ere bete beharko dutelarik.



- u) Kalez kaleko salmenta garatzeko indarrean dagoen legediak ezartzen dituen edo etorkizunean ezarri daitezkeen betebeharrak aplikagarriak izango dira udal baimendun titularrengan. Legedi horren betearazpena dagokion Herri Administrazioaren organoak zainduko du.
2. Aldizkako azoketan, azokako saltokietako titularren artean demokratikoki aukeratutako Ordezkarri Batzordea eratuko da, hiru kide izango du gutxienez eta bost gehienez. Batzorde horretan, azokan saltzen diren produkturik gehienak ordezkatuta egoteko ahalegina egingo da. Azokako Ordezkarrien Batzordeak haren bozeramaile modura jardungo du Udalaren aurrean, egon daitezkeen arazoei konponbide bat eman ahal izateko.

VL. KAPITULUA

KALEZ KALEKO SALMENTA ZAINTzea ETA IKUSKATzea.**25. artikulua. — *Ikuskatzea***

1. Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta kalez kaleko salmenta arloan une bakoitzean indarrean dagoen legedia eta osasun, higiene eta segurtasun arauak betetzen direla zaindu eta bermatuko du Udalak, beste Herri Administrazio batzuek euren eskuduntza garatzearen kalte barik.
2. Udalak bere zaintze lanak burutzerakoan, produktuak, jarduerak eta instalakuntzak ikuskatu daitezke, baita eskatu saltzaileei eurei buruz beharrezkoa litzatekeen informazio guztia.
3. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasuna edo segurtasunarentzat arriskua eragin ditzakeen produkturik balego saltokietan; kalitatean edo kantitatean iruzur eginez gero; saldu ahal izateko gutxieneko baldintzak betetzen ez badira; produktuak identifikatu barik edo trukaturik baleude, kautelaz esku-hartzeko espedientea zabaltzea aginduko du aginteak, araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera.

VLL. KAPITULUA

ZIGOR PROZEDURA.**26. artikulua. — *Zigortzeko ahalmena***

Merkatal Jarduera arautzen duen Maiatzaren 27ko 1994/7 Legeak araututakoaren bidez Eusko Jaurlaritzako organoen zigor eskuduntzaren kalte barik, Udalak zigortuko ditu Ordenantza honi buruz egindako lege-urratzeak. Alkatetza izango da zehapenak ezartzeko eskumena daukan organoa. Bermeoko Udaltzaingoaren Buruzagitzak egingo du espedienteen instrukzioa.

27. artikulua. — *Zigortze ahalmena arautzen dauan legedia*

1. Araudi honek dioana ez betetzea, 2/1998ko Otsailaren 20ko Legea ezarritako arabera tramitatuko da eta printzipio hauekin bat etorri beharko da: 39/2015 Legea edo ordeztuko legedian ezarritakoekin, lege honetakoekin nahiz lege hau garatuko duten arauetakoekin eta egongo diren zigor-erregimenetan ezarritako arlokako arauetakoekin.
2. Araudi honek dioana ez betetzea, 7/1985k apirilaren 2ko Legearen XI. Titulua-ren arabera zigortuko da ezarritako mugekin, dagokion espedientea zabaltzeko ondoren, lege-haustearen larritasuna izan beharko delarik kontuan zigorra jartzeko orduan.

28. artikulua. — *Arau hausteen erantzuleak*

Kalez kaleko salmentarako udal baimendun titularrek, eurek, euren senide edo langileek Ordenantza honetan ezarritakoaren aurka egindako lege-urratzeen erantzukizuna izango dute.



VILI. KAPITULUA
HUTSEGITEAK ETA ZIGORRAK

29. artikulua. — Arau hausteak

1. Arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izango dira.
2. Ordenantza honetan agertzen den xedapenik ez betetze soila hartuko da lege-urratze arintzat, kontsumitzaileentzat kalterik eragin ez badu eta ekonomia izaeradun ondorio zuzenik izan ez badu, beti ere, larritzat edo oso larritzat sailkatuta ez dagoen bitartean.
3. Lege-urratze larritzat hartuko dira:
 - a) Lege-urratze arinak baten baino gehiagotan burutzea.
 - b) Izaera ekonomikoko eragin zuzena edo kontsumitzaileentzat kaltegarriak direnak
 - c) Osasun arloko lege-urratze larriekin bat datozenak.
 - d) Beharrezkoa den udal baimen barik kalez kaleko salmentan aritzea.
 - e) Ordenantza honek ezarritako zaintze lanak burutu ahal izateko, aginteak edo honen langileek eskatutako informazioa lortzeko daturik ez ematea edota informazio okerra, osatugabea edo benetakoa ez dena ematea. Datu ematerik eza behin baino gehiagotan egiten bada, edota ukatze hori mehatxuez edo erasoz egiten bada, edota beste inolako presiorik egiten bajako aginteari edo baten langileari.
 - f) Jarduera lege-urratzaileek geldiarazteko agindurik ez betetzea.
4. Lege-urratze oso larritzat hartuko dira:
 - a) Lege-urratze larriak behin baino gehiagotan burutzea.
 - b) Pertsonen osasuna eta segurtasuna arrisku oso larrian jartzen duten lege-urratzeekin bat datozenak.
 - c) Kontsumitzaileei kalte larriak eragiten dizkienak.
 - d) Neurrigabeko onura ekonomikoa edota ekonomiazko ordena larriki aldatzen duten lege-urratze larriak.

30. artikulua. — Zigorrak

1. Kontsumitzaileen aldeko legedi orokorrak ezarritakoa aplikatzearen kalte barik, Merkatal Jardueraren maiatzaren 27ko 1994/7 Legeak ezarritakoaren arabera zigortuko dira lege-urratzeak; ondorengo koadroaren arabera zigortuko ditu udalak lege-urratze arinak eta larriak:
 - a) Honela zigortuko dira lege-urratze arinak:
 - 1) Oharra.
 - 2) Edota 200 eurorainoko isuna.
 - b) Lege-urratze larriak berriz honetara zigortuko dira:
 - 1) 500 eurorainoko isuna.
 - 2) Edota saltzeko baimenaren galera.
 - 3) Edota baimena etetea saio bat eta lau saio artean
 - c) Lege-urratze oso larriak berriz honetara zigortuko dira:
 - 1) 3.000 eurorainoko isuna.
 - 2) Edota saltzeko baimenaren galera.
2. Eusko Jaurlaritzako eskudun organoek zigortuko dituzte lege-urratze oso larriak.
3. Udal Arau honi buruzko arau-hausteak, eranskin modura agertzen den zigor zere-rrendan, isunen zenbatekoarekin, zehazten dira.

**31. artikulua.— Zigor osagarria**

Espedienteari buruzko erabakia hartu behar duen aginteak, zigor osagarri moduan, saltzeko ezarrita duden gutxieneko baldintzarik betetzen ez duten salgaiak, iruzur egingakoak, trukaturakoak edo identifikatuta ez dudenak dekomisatzea erabaki daiteke.

32. artikulua.— Zigorren gradua

Saldutako gaiak, eragindako kalteak, lege-urratzailearen asmoa eta sarritasuna eta lege-urratzeak izan duen eragin soziala izango dira kontuan zigorren gradua ezartzera-koan.

33. artikulua.— Preskripzioa

1. Ordenantza honetan aurreikusitako lege-urratzeak eta zigorrak sei hilabete-garrenean preskribituko dute arinak badira, urtean larriak badira, eta urte bigarrenean oso larriak izanez gero.

Ordenantza honetan aurreikusitako lege-urratzeak eta zigorrak urtebetera galduko dute indarra arinak badira, bi urtera larriak badira, eta hiru urtera oso larriak izanez gero.

2. Egin den egunean hasiko da lege-urratzeen preskripzio epea.

Zigor prozedura hasteak -interesdunari jakinarazita- eten egingo du preskripzioa. Ustezko erantzukizundunari leporatu ezin jakon zioagatik hilabetean baino gehiagotan geldiarazita balego zigor espedienteak, berriro hasiko litzateke preskripzio epea.

3. - Zigorra jartzen jakon erabakia irmoa bihurtzen den hurrengo egunean hasiko da zigorrak preskribitzeko epea.

Exekuzio prozedura hasteak -interesdunari jakinarazita- eten egingo du preskripzioa. Lege-urratzaileari leporatu ezin jakon zioagatik hilabetean baino gehiagotan geldiarazita balego, berriro hasiko litzateke preskripzio epea.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa: Ordenantza hau indarrean sartu orduko emanda dauden kalez kaleko salmantan aritzeko baimenen titularrek, euren jarduera garatzen jarraitu dezakete honen babespean, berau indarrean dagoen bitartean.

Bigarrena: Ordenantza hau indarrean sartzerakoan, lehendik hasita dauden kalez kaleko salmenta baimena emateko espedienteak haren menpe geratuko dira egokituta. Horretarako, eskagarria litzatekeen dokumentazio osogarria aurkeztea eskatuko zaie interesdunei.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen den une beretik, orain onartu den testuaren azpitik, haren aurka edota bat ez datozen xedapen guztiak derogatuta geratuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Tokiko Erregimen Oinarriak arautzen duen apirilaren 2ko 1985/7 Legearen 70.2 artikulua ezarritakoaren arabera sartuko da indarrean Ordenantza hau.



1. ERANSKINA ZIGOR TAULA

Art	Prf	Kalf	Kopurua (€)	
2	2	L	500,00	Beharrezkoa dan udal baimen barik kalez kaleko salmentan aritzea.
15	9	A	200,00	Jarduera ekonomikoaren erantzukizun zibileko aseguruia EZ izatea
19	1	A	200,00	Baimenean agertzen ez diren produktuak direnak saltzea
19	3	A	200,00	Identifikazio txartela EZ edukitzea erakusgai, udal aginteak eskatuz.
24	1a	A	200,00	Saltoki edo instalazio desmuntakorreetan EZ egitea salmenta
	1b	A	200,00	Udal baimena leku ikusgarrian EZ ipintzea.
	1b	L	Jarduera baimena etetea saio bat eta lau saio artean	Udal baimena leku ikusgarrian ez ipintzeagatik zigorra jaso eta jarrera errepikatzea
	1d	A	200,00	Salmetarako prezioak era ikusgarrian EZ izatea
	1e	A	200,00	Azoka funtzionamenduan dagoen orduetan titularra saltokian EZ egotea.
	1f	A	200,00	Udal langileak edo aginteak eskatzen jaken dokumentazioa EZ ematea
	1g	A	200,00	Azokaren ordutegia EZ betetzea
	1g	A	200,00	Azokako beste postu bat hartu hango titularra ez balego ere.
	1h	A	200,00	Saltzaileen ibilgailuak azoka barruan edo saltoki ondoan egotea.
	1i	A	200,00	Toki publiko, pribatu edota establezimenduetarako sarbideekaz salmenta egin
	1i	A	200,00	Oinezkoen igarobide edo etxebizitza gurutzetan egotea
	1j	A	200,00	Erreklamazioak egiteko helbidea EZ edukitzea leku ikusgarrian
	1k	A	200,00	Baskula edo neurtzeko metroa EZ edukitzea
	1l	A	200,00	Behar den moduan babestuta EZ izatea salgai guztiak.
	1m	A	200,00	Janari produktuak egokiak diren ontzi homologatuetan ez edukitzea.
	1n	A	200,00	Interesdunak eskatuz gero, salerosketaren erreziboa EZ ematea.
	1ñ	A	200,00	Zirkulazio librea oztopatu saltokien arteko pasabideetan
	1o	A	200,00	Jardueraren hondakinak udalak jarritako lekuetan EZ batzea
	1o	A	200,00	Hondakin kontenedoreak salmentaren ondorioz lekuz aldatzea.
	1p	A	200,00	Saltokiaren instalakuntza kontserbazio egoera onean Ez mantentzea
	1q	A	200,00	Hiri-altzarietan eta abarrean eragindako hausketak EZ konpontzea.
	1r	A	200,00	Jarduera instalakuntzek inori eragindako kalteen erantzuna EZ ematea.
	1s	A	200,00	Salgaien eskaintzak ahoskatzeko gailu akustikoak erabiltzea
	1t	A	200,00	Ordenantza lege aplikagarriek emandako aginduak EZ betetzea
29	3e	L	500,00	Eskatutako informazioa lortzeko daturik ez ematea
	3e	L	500,00	Informazio okerra, osatugabea edo benetakoa ez dena ematea
	3e	L	500,00	Datu ematerik eza behin baino gehiagotan ukatze, mehatxuez edo erasoz egitea
	3f	L	500,00	Jarduera lege-urratzaileek geldiarazteko agindurik ez betetzea.
	3a	L	500,00	Lege-urratze arinak baten baino gehiagotan burutzea.
	3b	L	500,00	Izaera ekonomikoko eragin zuzena
	3b	L	500,00	Eragin zuzena edo kontsumitzaileentzat kaltegarriak izatea
	3c	L	500,00	Osasun arloko lege-urratze larriekin bat datozenak
	4a	OL	3.000,00	Lege-urratze larriak behin baino gehiagotan burutzea.
	4b	OL	3.000,00	Osasun arloko lege-urratze oso larriekin bat datozenak
	4c	OL	3.000,00	Eragin zuzena edo kontsumitzaileentzat oso kaltegarriak izatea
	4d	OL	3.000,00	Neurrigabeko onura ekonomikoa sortzen duten lege-urratze larriak.



2. ERANSKINA

OSASUN-HIGIENE BALDINTZAK*(Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila – 2015eko otsailaren)***Elikagaien salmenta feria eta tokiko merkatuetan***(«in situ» elaborazioa kenduta).***Aplikatu beharreko legeria**

Salmenta ibiltari edo ez sedentarioa (feriak, azoka txiki, aldizkako merkatuak, bide publikoa, salmenta ibiltaria kamio-dendatan);

- Araudi orokorra: 852/2004 Erregiamendua.
- Araudi espezifikoa:
 - Autonomikoa: 7/1994 Legea.
 - Bizkaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 15/2015 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa.

Irizpide higieniko-sanitarioak

Eragile edo Udalak, feria edo azoketan saltzen diren elikadura produktu guztiak, in-darrean dagoen araudiak ezarritako osasun eta kontsumo baldintzak betetzen dituela ziurtatuko du. Horretarako, nekazal edo abeltzain jatorria duen edozein produkturi eskatzen zaizkion baldintzak aurreikusiko ditu. Horien artean, egile eta ontzirikratzailea egoki identifikatua egotea Elikagaigintzako eta Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean; etiketatzea; produktuaren zatiketa egonez gero edateko ura izatea eta abar.

Feria eta tokiko merkatuetan jartzen diren salmenta postuak bete beharreko baldintza higieniko- sanitario orokorrak («in situ» elaborazioa kenduta)

- Salmenta postuak, ahal den neurrian, garbiak, egoera onean, egoki diseinatuta eta eraikita egongo dira batez ere animalia edo organismo kaltegarriengandik etorri daitekeen kutsadura ekiditeko.
- Fruta eta barazkiak izan ezik, beste elikagai guztiak; era egokian etiketatuta erosi, mantenu eta erakutsiko dira. Salmenta zatitua denean, salmenta bukatu arte, jatorrizko ontzia bere etiketarekin gordeko da. Horrela, momentu oro, merkantziaren jatorria identifikatuta egongo da.
- Elikagai mota guztiak ez dira lurzoruarekin kontaktuan egongo.
- Ontziratu gabek izan eta kontsumorako prest dauden elikagaiak, beira-arasetan edo antzekoetan gordeta egongo dira. Batez ere, jendeagandik isolatuta egoteko eta/edo kutsadura arrazoiak ekiditeko. Fruta eta barazkiak goian aipatutakoagandik kanpo gelditzen dira.
- Salmenta postua jartzen duenak bere gain hartuko ditu; elikagaien etiketan agertzen diren hotz baldintzen mantenua; bai produktua garraiatu, biltegitatu edo erakusgarri gelditzen den uneetan. Nahikoa toki izango da hozkailuan haren beharra duten janariak bertan edukitzeko eta arauzko kontrola egiteko termometroa edukiko du. Orokorrean, erreferentziazko tenperatura 0° C eta 8° C bitartekoa izango da.
- Elikagaien manipulazioan eta/edo ontziratu gabeko elikagaien salmentan ari direnak, elikagaien manipulazioan aritzeko prestakuntza egokia dutela ziurtatuko dute.
- Feria edo tokiko merkatua jartzen den esparruak, garbitasun pertsonala ziurtatzeko instalazio egokiak (eskuak garbitu eta lehortzeko tokia, komunak, aldagelak eta abar) dituela erakutsi beharko du.
- Norbera eta soineko jantziak garbiak egon behar dira, eta baita jardueran erabiliko den tresneria ere.
- Jarduera burutzeko eta elikagaiak manipulatzeko orduan, norberak erabiliko dituen jantziak, egokiak izango dira, jarduerari erabat lotuak, eta, ahal dela, kolore zuria izango dute.



- Garbiketa egiteko material egokia izango dute, eta horrela behar izanez gero, lanerako ekipamendua eta tresneria desinfektatzeko ere.
- Elikagaiak manipulatzeko erabiltzen den gainazala edo, besterik gabe, elikagaiekin kontaktua izan dezakeen edozein gainazal erraz garbitu eta tresnak desinfektatzeko modukoa izango dira.
- Salmentan jartzen diren elikagai edo edarien prezioa ondo ikusteko moduko karteletan azalduko da.
- Salmenta postuaren arduradunaren datuak (izena eta produktuen jatorria) ondo ikusteko moduko karteletan azalduko dira.
- Jarduera burutu ahal izateko; txukuntasun, begirune eta garbitasun baldintza egokiak gordeko dira.
- Elikagaien salmenta zatituta egiten denean, salmenta postuaren instalazioak higiene baldintzak betetzeko prestatua egongo dira, hustubidea duen harraska edo txorrota eta kapazitate nahikoa duen ur depositua; garbitasunerako tresneria (xaboia eta paperezko toallak). Momentu oro, jatorrizko produktuari buruzko etiketa agerian egongo da.
- Bitarteko edo instalazio egokiak edukiko dira, jarduerak sortutako hondakin likido zein solidoak ezabatzeke.

Baldintza espezifikokoak (baldintza orokorrez gain)

Ogi, ogi berezi, euskal pastela eta pasta postuak

- Ogia, pastelak eta pasten jatorria, Elikagaigintzako Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean inskribatuta dauden establezimenduetarikoa izango da.
- Ogi zein ogi bereziak, honela salduko dira: banaka bilduta eta bilgarrian, gutxienez, ondorengo informazioa; Sozietate izena eta helbidea.
- Euskal pastela eta gozogintza elikagai guztiek, ontziratze eta etiketatu inguruan, indarrean dagoen araudia beteko dute

Zein postuak

- Salmentan jarritako zezinak, ontziratze eta etiketatu inguruan, indarrean dagoen araudia beteko du eta jatorria Elikagaigintzako Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean inskribatuta dauden establezimenduetarikoa izango da.
- Produktu guztiak beira-arasetan edo antzekoetan sartuta egongo dira.
- Produktu guztiak etiketatuta egongo dira.
- Salmentari dagokionez, soilik pieza osoak eta etiketatuak onartzen dira.
- Produktuen etiketan, hozkailua behar dela agertzen den kasuetan, bai produktua garraiatu, biltegitatu edo erakusgarri gelditzen den uneetan, hozte baldintzak zaindu beharko dira. Hozketa tresneriak kapazitate nahikoa izango du eta kontrola egin ahal izateko termometroa edukiko du. Erreferentziatzeko tenperatura 0°C eta 8°C artekoa izango da.

Okela postuak

- Salmentan jarritako okelak, ontziratze eta etiketatu inguruan, indarrean dagoen araudia beteko du eta jatorria Elikagaigintzako Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean inskribatuta dauden establezimenduetarikoa izango da.
- Honela merkaturatuko da okela; ontziratua, hoztuta eta etiketatua. Jatorrizko ontziak, ez dira zatituko.
- Hozketa tresneriak kapazitate nahikoa izango du eta kontrola egin ahal izateko termometroa edukiko du. Erreferentziatzeko tenperatura 0°C eta 7°C artekoa izango da.

*Fruta eta barazki postuak*

- Erakusgarri dauden produktu guztiak osorik, osasuntsu, garbiak, normala ez den kanpo hezetasun gabe, bitxia den usain eta zaporerik gabe egongo dira (kontsumorako baldintza egokiak betetzen ez dituztenak, kanpo geldituko dira)

Arrautza postuak

- Merkaturatutako arrautza guztiak kutxatiletan egongo dira, ontziratze eta etiketatu inguruan, indarrean dagoen araudia beteko du eta jatorria Elikagaigintzako Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean inskribatuta dauden establezimenduetarikoa izango da.
- Arrautzak soltean saltzen direnean, arrautzen bilgarriak jatorriari eta Erregistro Sanitarioari buruzko informazioa izango du. Bilgarriak ez dira berriz erabiliko, denak baten bakarrik erabiliko dira.

Esne eta esnekien (gazta, jogurtak eta abar) postuak

- Salmentan jarritako esne eta esnekiak, ontziratze eta etiketatu inguruan, indarrean dagoen araudia beteko dute eta jatorria Elikagaigintzako Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean inskribatuta dauden establezimenduetarikoa izango da.
- Produktuaren zatiketa dagoen kasuan (gazta), etiketari dagokion informazioa, une oro, bezeroaren esku egongo da.
- Produktuen etiketan, hozkailua behar dela agertzen den kasuetan, bai produktua garraiatu, biltegitatu edo erakusgarri gelditzen den uneetan, hozte baldintzak zaindu beharko dira. Hozketa tresneriak kapazitate nahikoa izango du eta kontrola egin ahal izateko termometroa edukiko du. Erreferentziazko tenperatura 0°C eta 8°C artekoa izango da.
- Produktoreari ez zaio baimenduko esne gordinaren kantitate txikiak azkeneko kontsumitzaileari zuzenean saltzea (640/2006 Errege Dekretua). Salbuespena izango da, jatorria Elikagaigintzako Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean inskribatuta eta baimendua dagoen egiletik denean.

Arrain produktuak kontserba eta erdi-kontserban dituzten postuak

- Arrainetatik datozen produktuak salmentan jarri ahal izateko ontziratze eta etiketatu inguruan, indarrean dagoen araudia beteko da eta jatorria Elikagaigintzako Elikagaien Erregistro Sanitario Orokorrean inskribatuta dauden establezimenduetarikoa izango da,
- Erdi-kontserbak (gatzetan jartzekoak, antxoa oliba-oliotan, arrain ketuak eta abar) garraiatu, biltegitatu edo erakusgarri gelditzen diren uneetan, hozte baldintzak zaindu beharko dira. Hozketa tresneriak kapazitate nahikoa izango du eta termometroa edukiko du. Erreferentziazko tenperatura 0°C eta 8°C artekoa izango da.

Ferietan eta festetan janariak prestatu eta kontsumitzeko instalazioak (in situ prestatu eta kontsumitzeko txosna edo postuak)

(Ez ibiltaria).

Irizpide higieniko-sanitarloak

Arau higieniko eta sanitario hauek baldintza batzuk zehaztu nahi dituzte, txosnek (aldi baterako instalazioek), festetan eta antzeko ospakizunetan, kontsumitzailearentzako janariak eta/edo edariak arau horien arabera prestatu eta/edo saldu ditzaten

Honako alderdi hauek zaindu beharko dira:

- Txosnek, ahal den neurrian, garbiak, egoera onean, egoki diseinatuta eta eraikita egongo dira batez ere kutsadura ekiditeko.
- Lurrak erraztu egin behar du garbiketa, eta eragotzi hondakinak pilatzea; gainera, modu egokian garbitua eta desinfektatu egin behar dira.



- Lan-egun bakoitzaren ondoren, sistematikoko, barrutia eta erabilitako tresneria garbitu eta desinfektatu egin behar dira.
- Txosnek bitarteko edo instalazio egokiak izan behar dituzte, jarduerak sortutako hondakin likido zein solidoak ezabatzeke.
- Behar beste ur edangarri eduki behar da.
- Txosnak jarriko diren esparruan, garbitasun pertsonala ziurtatzeko instalazio egokiak edukiko dira (eskuak garbitu eta lehertzeko tokia, komunak, aldagelak eta abar).
- Elikagaien manipulazioan ari direnak, elikagaien manipulazioan aritzeko prestakuntza egokia dutela ziurtatuko dute.
- Elikagaiak prestatzen erabilitako lehengaiak eta produktu eginak, baimendutako establezimenduetatik hartuak izango dira, eta lehengai eta produktuok, haien jatorria justifikatzeko, etiketen fakturen edo albaranen bitartez identifikatu ahal izango dira.
- Elikagaiak eta lehengaiak lurra ukitzen ez dutela eta karga egokiarekin gorde behar dira. Gainera, nahikoa toki izango da hozkailuan, haren beharra duten elikagaiak bertan edukitzeko. Hozkailuek termometroa izango dute, tenperaturaren arauzko kontrola egiteko. Orokorrean, erreferentziazko tenperatura 0°C eta 8°C bitartekoa izango da.
- Norbera eta soineko jantziak garbiak egon behar dira, eta baita jardueran erabiliko den tresneria ere.
- Lan egiten eta elikagaiak prestatzen langileek erabiliko dituzten jantziak, egokiak izango dira, jarduerari erabat lotuak, eta, ahal dela, kolore zuria izango dute.
- Garbiketa egiteko material egokia izango dute, eta horrela behar izanez gero, lanerako ekipamendua eta tresneria desinfektatzeko ere.
- Elikagaiak manipulatzeko erabiltzen den gainazala edo, besterik gabe, elikagaiekin kontaktua izan dezakeen edozein gainazal erraz garbitu eta tresnak desinfektatzeko modukoa izango dira.
- Jendeari emateko edalontzi, plater eta mahai-tresneria behin erabiltzeko modukoa izango da.
- Erakustokian dauden kontsumoko elikagaiak babestuta egongo dira, beira-arasetan edo antzekoetan gordeta egongo dira. Batez ere, jendeak ukitu ez ditzan eta/edo kutsadura arrazoiak ekiditeko.